

Hitzorduak

Joxean AGIRRE

Ez naiz inoiz oso fin ibili Historiarekin hitzorduak egiteko orduan. Gure 68ko Maiatza Arantzazun hasi zen euskara batuari buruzko bilerekin eta ni ez nengoen han. Oteizak bere Pietá famatua Etxebarrietaren omenez santutegi atariko horman eskegi zuenean ere ez nengoen han. Gu Parisera joan ginenerako, 69an, hiriburuko *paveak* beren lekuan jarrita zeuden, airean oraindik kedar usain pixka bat gelditzen bazen ere. Ez egoteagatik ez nintzen ezta Larraizko akelarre famatuan ere egon eta inork izatekotan, banuen bada nik garai hartan premia sexua bakarka edo taldean egiteko, endemas halako paraje batean.

Ez nituen Onaindia eta Argala ezagutu. Mendearen bigarren erdiko beste hainbat izen handi bai, bertatik bertara ezagutu nituen, Oteiza, Txillida, Nestor eta enparauak, esaterako, baina horiek

lanbideagatik ezagutu nituen gehienbat eta ez nituzke gertakari gisa hartuko. Amurizak lehen txapela jantzi zuenean han nengoen, baita Lopategik, Lizasok edo Egañak jantzi zituztenean ere. Joxe Agirrerekin berriketaldi luzeak egiten nituen etxeko behiak zaintzen genituen bitartean, baina kontu horiek Historia aldatu zutenik ere ez nuke esango.

Arnaldo Otegik, egia da, bizpahiru aldiz agurtu nau buruarekin keinu bat eginenez eta behin batean GARAKo komunitan berarekin egokitu nintzen parez pare pixa egiten, baina gizonezko gehienek badakitenez, ez da erraza izaten egoera horretan, baldosa zuri batzuei begira, gai sakonik jorratzea eta berarekiko nire harremana horretan bukatu zen.

Egia da lanbideari esker jende interesgarri asko ezagutu dudala. Arrats batez Saramagok Donostiara egin zuen bisita baten kronika polit bat idatzi nuen eta

EHUko testu liburu batean ikusi nuen gero lantxo hori ikasleen eredugarri, baina horrek ere lotura urria du Historiarekin.

Egunen batean, hemendik urte batzuetara, bilobaren batek galdetuko babilit ia nire bizitza luzean zein gertakari historikoren lekuko izan naizen ez nuke zalantzarik izango: 2023ko Tourrean egon nintzen, Le Grand Depart Bilbotik abiatu zen urtean, hirugarren etapa Zarautzik igaro zen egunean, Orioko aldan, eskuetan nuen ikurrina astindu eta astindu, Orixek mende bat lehenago “geroak esan beza erri bat izan zan” lelo pesimistari buelta eman eta munduak jakin zezan herri bat bazegoela hemen bizirik. Ez duzue bada esango historikoa izan ez zenik, azken mende honetan lehen aldiz euskaldun guztiok hartu baitugu elkar, egin baitugu bat, aldarrikapenak egiteko. Ez da “prozes” bat izan, baina hortxe-hortxe bere apalean. •

Opariak

Asier AIESTARAN

Antza denez, ikasturte amaieran irakasleei opariak egiteko ohitura hedatzen ari da. Agian ez da moda berria, baina nik orain izan dut horren berri. Irakaslearen lan fina eskertzeko gurasoek oparitxo bat egiten diote. Izan daiteke lore sorta bat, lepoko bat... Beste lanbide batzuetan ere ikusi izan dira antzekoak, goxo artatu gaituen sendagilearekin detailatxo bat izatea, adibidez. Eta apur bat urrunago joanda, enpresa munduan ohikoak diren gabonsariak ere aipatu litezke, hornitzaile batek bezero on batekin izan dezakeen keinua, esaterako.

Azken adibide horretan, ordea, konturatu zen irakurlea marra bat gainditu dugula. Hornitzaile batek bezero on bati oparia egiten badio mezua argia da: “Eskerrik asko fideltasunagatik eta jarraitu urte askoan guri erosten”. Hain zuzen ere horretara noa: irakasle edo sendagile bati oparia egitean ez al gara mezu inplizitu bat bidaltzen ari?

Ez dezala inork gaizki hartu. Ziur nago opari horiek egiten dituzten guraso edo pazienteen %99k bihotz onez egiten dituztela, trukean inolako mesederik espero gabe. Baina, bai, uste dut fede onez egiten den keinu horrek egoera desero-

soak sor ditzakeela besteengan, oparia jaso duenarengan edo ingurukoengan; jaso ez duenarengan, adibidez.

Eman dezagun irakasle batek oparia jaso duela, baina albokoak, ez. Zer pentsatu behar du jaso ez duenak? Zerbait gaizki egin duela? Edo irakasle batek urte batean oparia jaso duela baina ondorengoan ez. Urte horretan bere lana eskasagoa izan al da? Eta oparia norbanako batek egina baldin bada, ez al du sentituko nahigabe ere irakasle edo sendagile horrek nolabaiteko zorra ikasle edo paziente horrekiko etorkizunean? Adi jarraituko dut joera. •